



## ARRIGORRIAGAKO TOKIKO AGENDA 21 TOKIKO EKINTZA PLANAREN BERRIKUSPENA



1 Dokumentua. Sintesi diagnostikoa



<b>Dokumentuaren izenburua:</b>	<b>ARRIGORRIAGAKO TOKIKO AGENDA 21 1 Dokumentua.Diagnostikoaren sintesia.</b>
<b>Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal Laguntza Teknikoa:</b>	UTE Ondoan, S.Coop. Haizea Ikerketa S.L.
<b>Jasotzailea:</b>	<b>Arrigorriagako Udala</b>
<b>Parte hartu duten udalak:</b>	Arakaldoko Udala Arrankudiagako Udala Arrigorriagako Udala Etxebarriko Udala Galdakaoko Udala Orozkoko Udala Ugao-Miraballeseko Udala Urduñako Udala Zaratamoko Udala Zeberioko Udala
<b>Eskualdeko Jasangarritasun Bulegoa</b>	Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal
<b>Orrialdeak:</b>	28
<b>Hizkuntza:</b>	Euskara
<b>Bertsioa:</b>	Behin betikoa
<b>Entrega data:</b>	2012ko urria





## AURKIBIDEA

LABURPEN EXEKUTIBOA.....	6
AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA.....	8
HELBURUAK .....	9
LAN PROGRAMA.....	10
ARLO TEMATIKOAK ETA FITXEN EGITURA .....	11
EBALUAZIO GLOBALA ETA ESKU HARTZEKO EREMUAK.....	12

## LABURPEN EXEKUTIBOA

Jarraian, diagnostikoaren ondorio garrantzitsuenak azaltzen dira.

### LURRALDE ALDERDIAK

**Arrigorriaga 16,65** km<sup>2</sup> azalera duen udalerria da, gora behera handiko lurrian ezarrita dago, 60 m itsasoaren gainetik eta Nerbioi ibaiaren bi aldetan gora behera handiko erliebea duena, ibaiaren ezkerrean Pastorekorta (585 m) eta Arboliko (415 m) mendiak nabarmentzen direlarik eta ibaiaren eskuinaldean berriz, Artanda (547 m) mendia. Bizkaiko hiriburutik 9 Km-tara kokatua dago eta bertatik igarotzen dira Bilbo Gasteizekin lotzen dituen komunikabide nagusiak, baita goi lautadarekin lotzen dituenak ere. Alderdi hauek izan dira azken urteetan biztanleriaren handitzea eragin dutenak, 12.000 biztanle gaitzera iritsi arte.



Azpiegitura linealek (autopistak, oinarriko bideak eta trenbideak) udalerriko lotura ekologiko, gizarte lotura eta paisaiarekin erlazionatutako loturasustatzen badute ere, lurzoru urbanizaezinak udalerriko azalaren bi heren ordezkatzen ditu, non % 65ak **baso landaretza** pribatuak ordezkatzen duen eta hau zura egiteko pinuetaz osatua dagoen gehienik. Beste baso-lurzorua onura publikokoa da, batez ere artadi kantauriar eta haritz osatua dagoen zuhaitz espeziez osatua nagusiki.

Halaber, Mendikosolo eta Montefuerte bezalako **gune berdeetan eta herri inguruko parkeek** biztanleriak aisialdirako lekua izatea baimentzen dute. Herriak ezagutu eta babestu beharra dagoen ondare arkitektoniko eta kulturala du.



Herriak gertuen dauzkan erronketariko bat **Hiri-antolamendurako plan nagusiaren (HAPN) berrikuspena egitea da**. Prozesu honetan, eraikitako ondarearen babesa, hobekuntza eta erabilera egokia sustatuko duen eta herri lurzoru babestuz beharrezkoak ez diren hazkunde eta hiri hedapenak ekidindo dituen estrategia bat aurreikusten da.

**Bilborekin eta eskualdeko beste herrieekin dauden komunikazioak onak dira (bide sarea, autobus sarea eta trenbide sarea RENFE). Hala ere,** beharrezkotzat jotzen da trenbidea kudeatzen duen enpresek (ADIF) geltokiko irisgarritasun baldintzak hobetzea.

Oraindik hobetu beharreko gauzak egon arren, **mugikortasunaren kudeaketa eta plangintzan** aurrera egiten ari da bai herri mailan eta baita eskualde mailan ere. Bai herrian bertan eta baita inguruko herrien loturetan ere oinezko eta bizikletentzako irisgarritasun baldintzak hobetzeko daude oraindik..

### BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA

**Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak eta Udal Sareak uraren kudeaketa integrala egiten dute.** Hornikuntza eta saneamendu mailak ia udalerriri guztia hartzen du eta **ur banaketa sarearen etekinak, % 22,5ko ur galerak baino ez ditu,** Eusko Jaurlaritzak ezarritako helburua hobetzen duelarik.



**Azken urteetan goranzkoa izan da hiri-hondakin sorreraren bilakaera biztanleko eta urteko,** nahiz eta sortutako hiri hondakinak 1,1 kg/biz/egun, Bizkaiko Foru Aldundiak 2.012 urterako ezarritako helburuaren azpitik egon.

**Hondakinen bereizketa** eskualdeko batez bestekoaren azpitik dago.

**Herriko egitura energetikoa,** Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriri askorena bezala erregai fosilen erabileran oinarritzen da, ondorioz berotegi efektua eragiten duten gasen isurketa ematen delarik. Beraz, herriko beste erronka nagusietariko bat, bai maila publikoan nahiz pribatuan, esparru honetan sakontzea da berriztagarriak ez diren iturrien erabilera murriztuz eta berotegi efektua eragiten duten gasen isurketa gutxituz.

**Airearen kalitateak** hobera egin du azken urteetan, Eusko Jaurlaritzak herrian dituen laginketa puntuetatik ondorioztatzen den moduan, gaur egun ezarritako gehienezko balioak gaitzitzen ez direlarik.

Udalerriko **kalitate akustikoa** ona da, eraginik handiena bertatik pasatzen diren komunikabideen azpiegiturak dutelarik.

Herrian **kutsatuak egon daitezkeen lurzorua**k ehuneko baxu batean egon arren, inguruko ezaugarri naturalak kontuan hartu ez gero, beharrezkoa egiten da horrelako kokalekuetan zaintza eta jarraipen ekintzak indartzea eta berreskuratze neurriak ezartzea ere.

**Uholdeak gertatzeko arriskua** eta merkantzia arriskutsuen garraioarekin loturiko **istripuak** gertatzeko arriskuak direla eta Arrigorriagako prebentzio eta esku hartzerako baliabideen arteko elkarlana beharrezkotzat jotzen da.

## GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA

**Arrigorriagan ekonomia jarudera dagokionean hirugarren sektorea nagusitzen da.** Industri sektoreak herriko ekonomian pisu altua izaten jarraitzen duen arren, Bizkaian sektoreak ordezkutzen duena baino gehiago, zerbitzu sektorearekiko duen pisua geroz eta txikiagoa da, zerbitzu sektorea izanik enplegu gehien ematen duena.

Hala ere, Arrigorriagan zerbitzu sektoreak, Bilboko Metropoliarekin duen gertutasuna dela eta eta eskainitako zerbitzuak merkatu beragatik lehiatzen dutenez, garatzeko zailtasunekin aurkitzen da. Erainkuntzaren jaitsiera eta lehen sektorearen desagerpenak udalerriko egitura ekonomikoaren gaur egungo egoera laburtzen dute.

**Gizarte zerbitzu eta ekipamendu eskaintzak**, dagoen eskariari erantzuna ematen dio momentuz.

**Zaharkitutako biztanleria bati eta geroz eta ugariagoa den biztanleria atzerritar bati** arreta emateko, beharrezkoa da bi taldeek izango dituzten beharrianak aurreikustea, herri mailan asetu ahal izateko.

Udaletxeak **Berdintasunerako Plan** bat du, honen bitartez gizon eta emakumeentzako berdintasunean oinarritutako gizarte bat baimentzen duten gizarte genero politikak garatzen dira.

Nahiz eta azken urteetan Arrigorriagan, **euskararen ezagupena gorantz** joan den, bere erabilera Nerbioi-Ibaizabal eskualdearen batez bestekoaren azpitik dago. Egoera honek, euskararen eguneroko erabilera bultzatzen dituzten politikak garatzen jarraitu beharra adierazten du.

**Kirol eta kultura azpiegiturak ugari eta anitzak dira** eta bertan eskainitako egitarauak gizartearen beharriari erantzuten diete, gerora begira gaur egun eskaintzen den zerbitzu maila mantentzea garrantzitsua delarik. Halaber, Udala eta gizarte eragileen artean harreman on bat dago eta honek ekintza koordinatuen garapen egokia errazten du, eskaintza hobeago bat posible eginaz eta antolatutako ekintzen aurrean gizartearen erantzun hobeago bat baimentzen delarik.

## SENTSIBILIZAZIOA, HERRITARREN PARTAIDETZA ETA BARNE KOORDINAZIOA

**Parte-hartze kultura eta komunitate kontzientzia finkatzen lagunduko duten egitura parte-hartzaile berrien** aurrerakuntza prozesu hasi berria izan arren emaitzak ematen ari da dagoeneko.

Herriko jasangarritasun prozesuaren oinarria **sentsibilizazioa, prestakuntza eta eguneroko bizitzan** praktika egokien ezarpenaren bitartez biztanleria eta tokiko administrazioaren ohiturak aldatzea da.

Udalbarria proiektuak eta ezarritako kudeaketa eta jarraipen ereduak garatzen ari diren zenbait politiken zeharkakotasunak **departamentuen arteko koordinazioa eta elkarlana** are gehiago indartzen dute.



## AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA

2004 urtean Nerbioi-Ibaizabal eskualdeko udalerriak (Arakaldo, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Etxebarri, Galdakao, Ugao-Miraballes, Urduña, Orozko, Zaratamo eta Zeberio) **Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal** sortu eta Tokiko Agenda 21 prozesuak era bateratuan diseinatzeko asmoz elkartu ziren.

2006 eta 2007an diseinu fasea behin amaitu ondoren (diagnostikoak idaztea eta Ekintza Planak onartzea) eta Aalborgeko Gutuna sinatu ondoren, udalerrri guztiek **Udalsarea 21**eko partaide izatera pasa ziren, Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea.

2011 urtean Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabalek **Eskualdeko Iraunkortasun Bulegoa** abian jartzen du. Hamaika udaletxeei (lehen aipaturikoak gehi Basauri) eta Nerbioi-Ibaizabalgo eskualdeko herritarrei orokorrean, zerbitzua, baliabideak eta ekintzak eskaintzeko asmoz sortutako ekipamendua da.

Tokiko Agenda 21a abian jarri denetik udalerrietan eskualde mailako zenbait proiektu eta ekintza garatu dira. Ondoren Eskualdeko Iraunkortasun Bulegoaren zerbitzu nagusienak aurkezten ditugu, 5 lan esparruetan banaturik:

1. **Tokiko Agenda 21:** Tokiko Ekintza Planen gauzapenean, ezarpenean eta ebaluazioan laguntza.
2. **Industriako Agenda 21:** Eskualdeko enpresetan ingurumen hobekuntzarako laguntza.
3. **Eskolako Agenda 21:** Eskualdeko eta udalerriko ikastetxeen iraunkortasunerako eta kalitaterako hezkuntza Programa.
4. **Hondakinen kudeaketa:** Eskualde mailako bilketa zerbitzua: etxeko olioak, inpresio hondakinak eta mugikorak; pilak eta akumuladoreak; erabilitako arropa eta *aprobetxagarriak diren bestelako etxeko objektuak*.
5. **Mugikortasun iraunkorra:** Eskualdeko Iraunkortasun Planean aurreikusitako ekintzen ezarpena.

6 urte igarota 1go Ekintza Plana onartu eta bere gauzapena hasi zenetik, Udaletxeek Eskualdeko Iraunkortasun Bulegoaren bitartez, berrikuspen prozesua abian jartzea erabakitzen dute, **aurreko plana ordezkatzeko duen eta udalerriek dituzten behar eta baliabideekin bat etorriko den plan berri bat egiteko**.

Testuinguru honetan eta berrikuspen prozesu honen lehen fasearen ondorioz, 2012 urtea bitartean Arrigorriagako Udalak udalerriko *Gizarte, ekonomia eta ingurumen Diagnostikoa* egin du.



## HELBURUAK

Berrikuspen prozesuaren **helburu nagusia** datozen 8 urteetan udalerrian garatuko diren lehentasunezko jarduera esparruak barne hartzen dituen Tokiko Ekintza Plan bat definitzean datza. Gainera, zera lortu nahi da:

- Planaren helburuak eta ekintzak iraunkortasunarekin erlazionaturiko legeriaren, teknikaren ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren bilakaerara egokitzea.
- Planaren ezarpen maila nolakoa izan den arabera Plana gaika egokitu.
- Plana udalerrriaren giza, ingurumen eta ekonomia bilakaerara egokitu.
- Planean aurretik kontutan hartu ez ziren gai tematiko berriak sartu.
- UT21 Nerbioi-Ibaizabalgo udalerrien artean egindako eskualde mailako hausnarketaren bitartez Eskualde mailako Ekintza Plan bat zehaztu.

Berrikuspenaren lehen fasean, **helburu zehatzak** hauek dira:

- Lurralde, ingurumen, komunikazio, parte-hartze eta gai sozio ekonomikoen inguruko azterketa bat egin ondoren balorazioa egiteko.
- Balorazio horretatik abiatuta, Ekintza Plan berriaren lehentasunezko jarduera esparruak ezarri.
- Aurreko Planean indarrean dauden eta garrantzitsuak diren ekintzak identifikatu.
- Udalerriko eta udalaz gaindiko planak eta programak identifikatu Plan berriari sartu ahal izateko.
- Helburu estrategikoak zehaztu Plan berriaren formulazioa egiteko.
- Interesa duten gizarte eta ekonomia eragileen eta herritarren ikuspegia txertatu.
- Gaian eskumenak dituzten politikari eta teknikarien balioztatzea bermatu.

## LAN PROGRAMA

Tokiko Ekintza Planen berrikuspena egiteko erabilitako oinarrizko metodologia “*EAE-ko udalerrietako Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planak berrikusteko gida metodologikoa*” oinarritzen da. Gida horrek dionari eutsiz, Tokiko Ekintza Plan baten berrikuspenak honako faseak ditu:

0. Zehaztea eta abian jartzea.
1. Oinarrizko informazioa biltzea eta barneratzea.
2. Sintesi Diagnostikoa.
3. Planaren Formulazio estrategikoa.
4. Ekintzen ezaugarritzea.
5. Plana kudeatu, jarraipena egin eta onartzeko lanabesen diseinua.

Metodologia hori aintzat hartuta, ***lan teknikoa, barne koordinazioa eta parte-hartzea eta herritarren parte-hartze ekintzak*** kontutan hartu dituen **Lan Programa** bat garatu da:

- **Lan teknikoak:** Aholkulari Taldeak burutuak proiektuko Zuzendaritza Politikoa eta Teknikoa eta teknikariek elkarlanean.
- **BARNE koordinazio eta parte-hartze lanak:** Bakarkako elkarrizketak edo talde lanaren bitartez PARTE-HARTZE BATZORDEAREN bitartez, udaletxeko arlo ezberdinetako politikari eta teknika-ri osatutako udal barrutiko organoa.
- **HERRITARREN PARTE-HARTZE ekintzak:** interesa duten giza eragileei egindako elkarrizketen bitartez, web galdetegiaren bitartez eta Herritarren parte-hartze Foroaren bitartez (*herritarren ekarpenak dokumentuan espresuki aurretik eta kurtsibaz doan (\*) bitartez seinlatu dira*).


## ARLO TEMATIKOAK ETA FITXEN EGITURA

Diagnostikoko ondoren aurkezten ditugun 17 arlo tematikoz osatzen da:

<p><b>LURRALDEARI LOTURIKO ALDERDIAK</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Lurraldea eta plangintza</li> <li>2. Natura eta bioaniztasuna</li> <li>3. Mugikortasuna eta garraioa</li> </ol>	<p><b>SENTEBILIZAZIOA, HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA BARNE KOORDINAZIOA</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>11. KOMunikazioa, sentebilizazioa eta herritarren parte-hartzea</li> <li>12. Barne koordinazioa eta zeharkakotasuna.</li> </ol>
<p><b>NATUR BALIABIDEAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>4. Ura</li> <li>5. Hondakinak</li> <li>6. Energia</li> <li>7. Ingurumen kalitatea (atmosfera, zarata eta lurzorua)</li> <li>8. Arriskuaren kudeaketa eta jarduera ekonomikoak</li> <li>9. Erosketa publikoa eta udal administrazioa ingurumen kudeaketa</li> <li>10. Klima aldaketa eta inpaktu orokorra</li> </ol>	<p><b>GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>13. Biztanleria</li> <li>14. Garapen ekonomikoa eta lan merkatua             <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekonomia egitura eta jarduera maila</li> <li>- Lehen sektorea</li> <li>- Bigarren sektorea</li> <li>- Zerbitzuen sektorea</li> <li>- Turismo eta ostalaritza sektorea</li> <li>- Enplegua eta lan merkatua</li> </ul> </li> <li>15. Ongizatea eta gizartratzea             <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zuzentasuna eta gizarte zerbitzuak</li> <li>- Genero berdintasuna</li> <li>- Elkarbizitza</li> <li>- Osasuna eta osasun zerbitzuak</li> <li>- Telekomunikazioak eta IKT-etara irismena</li> </ul> </li> <li>16. Hezkuntza, euskara, kultura eta kirola</li> <li>17. Etxebizitza</li> </ol>

Alor tematiko bakoitza azpi-alorrez osatua dago eta hauetako bakoitzean **diagnostikatutako alderdi klabeak kontutan harturik balorazio kualitatiboa eta orokorra egin da**, helburua honakoa da:

- Beste azpi-alorrekin konparatuz era positiboagoan edo negatiboagoan baloratzen diren azpi-alor horien inguruko ikuspegi orokorra eskaini.
- Lehentasunezko jarduera esparruen identifikazioa erraztu.
- Udaletxeko teknikari, politikari eta herritarrek orokorrean diagnostikoa irakurri eta eztabaidatu dezaten sustapena egin.






<b>BALORAZIOA</b>	
 <p><b>Ez baloragarria</b></p>	<p>Balorazioa egiteko irizpideak <i>“EAE-ko udalerrietako Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planak berrikusteko gida metodologikoa”</i> agertzen dira.</p>





Diagnostikoko arlo tematiko bakoitzaren edukia, balorazioa eta lehentasunezko jarduera esparruak **FITXA TEMATIKO** gisa jasota daude.










## EBALUAZIO GLOBALA ETA ESKU HARTZEKO EREMUAK

LURRALDE ALDERDIAK			
Azpi-eremua	Balorazioa	Alderdi nagusiak	Esku hartzeko eremuak
<b>1. LURRALDEA ETA PLANEAMENDUA</b>			
1.1. Lurralde Eremua		Arrigorriaga <b>Bilboko Metropoliaren Gune Funtzionalean</b> aurkitzen da.	<p><b>Udal eskumena</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Jasangarritasun irizpideak txertatu hiri planeamenduan</b> (dentsitateak, erabileren dibertsifikazioa, inpaktuak, e.a.)</li> <li>• <b>Aisialdirako ekintzak garatzeko eta oinezko eta bizikletentzako gozamerako eremu eta gunek balioan jartzea..</b></li> <li>• <b>Udal ondare arkitektonikoaren zaintza eta balioan jartzea.</b></li> </ul> <p><b>Udalaz gaindiko eskumena</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Elementu naturaletan oinarrituz eta intereseko gunek beraien artean eta gune nagusiarekin lotuz <b>pasabide berdeak bide sistema moduan sustatzea..</b></li> <li>• <b>Hondatutako guneen berreskurapena bultzatu</b>, batik bat Udalaren eskumenetan ez dauden horietan.</li> </ul>
1.2. Udal Lurzoruaren egitura organikoa eta erabilera		<b>Lurraren erabilerak hurrengo</b> banaketak ditu: lurrraren % 68, lurzoru urbanizaezinaz osatua dago, % 23 sistema orokorreaz, % 5 egoitzarako lurzoruz eta % 5 jarduera ekonomikorako lurzoruz.	
1.3. Hiri egitura eta ehundura		<b>Onura publikoko mendiek</b> 70,48 Ha. ordezkatzen dituzte eta hauek haritzek eta pagoz osatuta batez ere, <b>nekazaritza eta abeltzaingoari</b> 240 Ha. dagozkio, hauetatik 9,35 Ha. balio estrategiko handikoak dira eta 231,05 Ha. <b>trantsiziozko landa paisaiaz osatua daude.</b>	
1.4. Hiriko eta hiri inguruetak berdeguneak		Herria <b>bi herrigunez</b> osatu dago, Arrigorriaga-Hirigunea eta Abusu, biztanleriaren % 97a biltzen dutenak eta alanda gunek biztanleria gutxiarekin. Arrigorriagak biztanleko 15 m <sup>2</sup> eremu berde izanik eskatzen diren gutxieneko 5 m <sup>2</sup> biztanleko <b>hirukoitzen</b> ditu eta Bilbo Handiaren batez bestekoaren <b>gainetik</b> aurkitzen da (8 m <sup>2</sup> biztanleko) baita Bizkaiaaen gainetik ere (11,46 m <sup>2</sup> /biztanleko).	
1.5. Hiri paisaia eta gune hondatuak		Montefuerten kokatutako <b>167,70 Ha.</b> Birsorkuntza eta Hobekuntza Eremu bezala mugatuta daude. Udalerrian badago Monumentu Maltzo bezala sailkatutako <b>ondare kulturala</b> , esaterako Malmasingo Gotorlekuaren Esparru Arkeologikoa eta ustezko arkeologi eremu bezala sailkatutako ondare zabal bat.	
1.6. Ondare arkitektoniko eta kulturala		<b>Bilbo Metropoliaren Eskualde Egituraren Lurraldearen Zatiko Plana 2.006.</b> urteko azaroan onartu zen eta Arrigorriagako ekintza egituratzaileak ezarri zituen.	
1.7. Lurralde eta sektore antolamendua		<b>Jarduera ekonomikoko eta ekipamenduetako sorkuntza publikoko Lurralde Sektore Planak (2.004)</b> Arrigorriaga jarduera ekonomikoak garatzeko eta antolatzeko lehentasunezko interesa duen udalerrri moduan sailkatzen du, Bentako Erreka eta Martiartu II eremuak identifikatuz.	
1.8. Hiri antolamendua		<b>(HAPN) Herri Antolamendurako Plan Nagusiaren</b> aurrerapena eginda eta onartua dago, bere tramitazioa garatzen ari delarik eta <b>jasangarritasun irizpideak</b> kontuan hartzen dituelarik bai antolaketan eta baita lurzoruaren arautzean eta eraikuntzan ere.	


LURRALDE ALDERDIAK			
Azpi-eremua	Balorazioa	Alderdi nagusiak	Esku hartzeko eremuak
<b>2. MUGIKORTASUNA ETA GARRIOA</b>			
2.1. Ohiko mugikortasun beharraren ezaugarriak		<b>Herri barruan, oinezkoen bidaiak ugaritu dira.</b> Motordunen mugikortasunaren garapenak <b>gora egin du</b> , bai eskualde barruko ibilbideetan baita herri barrukoetan ere.	<p><b>Udal Eskumena</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Eskualdeko Mugikortasun Jasangarriako Planak</b> ezarritako neurriak ezarri.</li> <li>• Bizikletaren erabilera errazteko, <b>Bizikletaren erabilera bultzatu eta beharrezkoak diren azpiegituraz hornitu</b>, eskualdeko bizikleta sarean Planaren arabera.</li> <li>• <b>Bai oinezko eta baita bizikletentzako ere bizikletentzako ibilbide ziurren erabilera bultzatu..</b></li> <li>• <b>Arrigorriagako bidegorrien lotura</b> inguruko herriekin <b>bultzatu.</b></li> <li>• Ikastetxeetan <b>bide segurtasunari buruzko jardunaldiak antolatzen bultzatu eta lagundu.</b></li> <li>• <b>Herriko Irisgarritasun Plana</b> garatu.</li> <li>• <b>Biztanleria</b> Mugikortasun Jasangarriari <b>buruz sentsibilizatu.</b></li> <li>• <b>Aparkatzeko baldintzaz hobetu.</b></li> </ul>
2.2. Mugikortasunaren kudeaketa eta antolaketa		<b>Eskualdeko Mugikortasun Jasangarriaren planak, 2.011. urtean egina Nerbioi Ibaizabal eskualdeko 11 herrientzat</b> , energetikoki eraginkorragoa den mugikortasun jarduera integrala proposatzen du, gutxiago kutsatzen duena eta herritarren bizi kalitatea hobetuko duena.	
2.3. Lurraldeko loturak eta irisgarritasuna		<b>Inguuruarekin lotura ona da ( bide sarea, autobus sarea, trenbide sarea)</b> , nahiz eta eskualde arteko eta Bilbo arteko garraio publikoaren loturak eta maiztasunak hobetu daitezkeen, horretarako Eskualdeko Mugikortasun Planean proposatutako planteamenduak kontuan hartuko dira.	
2.4. Garraio publikoa		Arrigorriagak 2.010 urtean udaletxean <b>irisgarritasuna hobetzeko ekintzak</b> garatu ditu eta Kubo auzoan irisgarritasuna hobetu eta oztopoak kentzeko ekintzak garatu ditu baita ere.	
2.5. Oinezko eta bizikleten sarean ezaugarriak		<b>Kaleak peatonalizatu eta semipeatonalizatzeko ekintzak gauzatu dira</b> eta Basaurirekin batera Bizkaiko bizikleta sarean konektatzeko asmoz, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Basauriko udalarekin batera <b>oinezkoentzat eta bizikletentzat sareak</b> garatu dira. Bide berriak egiteko aurreikuspena dago. HAPNaren aurrerapenak bertako biztanleriari lehenetsunez zuzendutako aparkalekuak egiteko lurzoru horniketa egitea proposatzen du baita herriko sarreretan aparkalekuak egitea ere.	
2.6. Bide sarea		<b>Udalerriko ibilgailuen gorakada etengabekoa izan da</b> , 0,58 ibilgailu biztanleko ratioarekin, Bizkaiko batez bestekoaren gainetik, 0,57.	
2.7. Aparkalekua		2.005-2.010 urte bitartean gertatutako <b>trafiko istripuak hiru puntu gutxitu dira.</b>	
2.8. Motorizazio eta ibilgailuen atala		<b>Bide sarean salgaien-garraioak eragozpenak eta arriskuak sortzen ditu</b> (Renfe, autobidea eta BI-625).	
2.9. Istripuak		<b>Eskola Agenda 21</b> proiektuan mugikortasuna landu dute IES Arrigorriaga ikastetxean.	
2.10. Salgaiak			
2.11. Bide hezkuntza			






LURRALDE ALDERDIAK			
Azpi-eremua	Balorazioa	Alderdi nagusiak	Esku hartzeko eremuak
<b>3. BIOANIZTASUNA ETA PAISAIA</b>			
3.1. Natura eta paisaia balioak		<p>Pinus radiatako baso-landaretzak nagusitzen dira, (azalera guztiaren % 30,54)a beste motatako baso-landaretzak %14,98 ordezkutzen dute eta belardi eta laborantza atlantikoak %11,92, lore espezie inbaditzaileen inbasio maila ertaina da.</p> <p>Animaliei dagokionez, <b>UT21 Nerbioi-Ibaizabalgo</b> lurralde eremua fauna aldetik interesa duten zenbait espezie moten habitata da eta <b>fauna exotikoeta inbaditzailea</b>amerikar bisoia, amerikar karramarroa, karpa, eguzki arraina,lutxoa, zamo txikia eta apoarmatu amerikarra dira besteak beste.Gizakien jarduerak sakonki eragin dute udalerrriak haseran zuen paisaian, <b>landaretza potentziala eraldatuz</b>.</p> <p><b>Nerbioi-Ibaizabal Unitate Hidrologikoaren</b> ur masak (Ibaizabal-G), egoera ekologiko neurritsua aurkezten du.</p>	<p><b>Udal eskumena</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Herritarren parte-hartzea eta inplikazioa bilatuz, <b>ingurugiroarekin loturiko heziketa eta zabalkunderako ekintzak areagotu.</b></li> <li><b>Udalerriko bideak balioan jartzea.</b></li> <li>Udalerrri barruan <b>Babes bereziko guneak, biztanleriaren artean jendarteratu.</b></li> <li><b>Biztanleria</b> herriak dituen <b>baliabide naturalei gerturatu.</b></li> <li><b>Ingurunea kutsa dezaketen jardueren kontrol eta jarraipena</b>, batez ere errekei dagozkienak.</li> </ul> <p><b>Udalaz gaindiko eskumenak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li><b>Balio naturalak babesteko baliabideak ezarri</b></li> </ul>
3.2. Sistema naturalen eta paisaiaren kontserbazio egoera		<p>Nerbioi ibaiak Arrigorriagatik pasatzean, osagai hidromorfologikoaren QBR (ibarbaso) adierazlearen arabera, <b>kalitate txarra</b> aurkezten du 2011 urtean.Udalerrian garatutako erauste jarduerak <b>garrantzi handia</b> izan dute, arau ordezkatzailaetan bereziki arautuak egonik.</p>	
3.3. Jardueren eragina eta arriskuak nekazaritzan zein natur ingurunean		<p>Arrigorriagako udalerrriak Ganekogorta mendiarekin muga egiten du, babes bereziko udal azaleraren % 0,05 ordezkatur.</p> <p>HAPNaren aurrerapenak lurzoru ez urbanizagarriko kategoriak Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Sektore Planak ezarritako kategorietara egokitzea aurreikusten du.</p>	
3.4. Babestutako naturguneak			
3.5. Natur ingurunearen antolamendua eta kudeaketa			






BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA			
Azpi-eremua	Balorazioa	Alderdi nagusiak	Esku hartzeko eremuak
<b>4. URA</b>			
4.1. Ur hornidura		Arrigorriaga Bilbo Bizkaia Ur Partzuergo barruan dago, udalerriko sare nagusiaren kudeaketaz arduratzen delarik. Udal Sareak, S.A. bigarren mailako sarea kudeatzen du. Ura banatzeko sareak eta ura banatzeko azpiegiturak <b>nahikotzat hartzen dira, udalerria guztia hartzen dutelarik.</b>	<p><b>Udal eskumenak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Uraren erabilera eraginkorra</b> sustatu erabilera ez sanitarioetarako euri ura erabiliaz edo eta beste jatorri bat duen ura erabiliaz.</li> <li>• Uraren erabileran <b>eraginkortasuna</b> sustatzen duten lanabesen ezarpenean aurrera egin.</li> <li>• Biztanleria eta udal instalakuntzen erabiltzaileak <b>sentsibilizatzen jarraitu ura</b> aurrezteko.</li> <li>• Udal ekipamenduetako <b>ur kontsumoak kontrolatu, jarraipena egin eta optimizatu.</b></li> </ul> <p><b>Udalaz gaindiko eskumenak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Sarean ematen diren ur galerak kontrolatu eta gutxitu.</li> </ul>
4.2. Edateko ura banatzeko sarea		<b>Kontsumorako uraren kalitatea egokia da,</b> 140/2003 Errege Dekretuan ezarritako irizpideak beteaz. 2.010 urtean, zerbitutako ur guztiarekiko kontrolatu/kontabilizatu gabeko ur bolumena %22,2koa izan zen 2010 urtean, EAE (2007–2010) II Ingurumen Esparru Programan ezarritako <b>% 25 ur galerak ez edukitzearen</b> konpromisoarekin beteaz. . <b>Sektore desberdinen kontsumoari</b> dagokionez, etxeko sektorea nagusitzen da % 60,2ko kontsumoarekin, datua merkataritza eta bigarren sareko industria sektoreen gainetik aurkitzen da, % 26,2.	
4.3. Eskaera eta kontsumoa		Ur kontsumoa 2.010. urtean 102,7 litro/biz/eguneko izan zen, 50.000 eta 15.000 biztanle bitarteko Udalsareako udalerrien batez bestekoa baino <b>hobea</b> (120,3 litro/biz./egun), <b>maila hau mantentzea</b> egokia delarik.	
4.4. Saneamendua eta arazketa		Udalerririak, <b>saneamendu maila ona du</b> , herriguneko etxebizitzaren % 96ak saneamendu sarera lotuta daudelarik.	
4.5. Uraren zikloaren araudia eta kudeaketa		Udalerria Bilbo Bizkaia Ur Partzuergo barruan dagoelako Ur Partzuergoari dagokio zerbitzua arautzea..	
4.6. Sentsibilizazioa		Eskualdeko Jasangarritasun Bulegotik garatu dira sentsibilizazio ekintzak.	
<b>5. HONDAKINAK</b>			
5.1. Hiri hondakinak sortzea		2.005–2.009 urte bitartean <b>hiri hondakinen sortzea % 15,28a igo</b> da, UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko batez bestekoaren <b>gainetik</b> (% 9,27). Era berean, etxeko hondakinen sorrera tasak % 12a baino gehiago igo dira, 1,1 Kg/Biz/eguneko helduz. Halaber, maila hau 2.012 urterako BUHK Planaren, 1,13 Kg/biz/egun ez gainditzeko duen <b>helburuaren barnean</b> mantentzen da.	<p><b>Udal eskumenak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hondakinen bereizteka maila igotzeko eta hiri hondakinen sormena gutxitzeko bai biztanleria eta baita jarduera ekonomiko desberdinei zuzendutako formakuntza, informazio eta sentsibilizazio ekintzen garapena.</li> </ul>
5.2. Gaikako bilketa			
5.3. Hiri hondakinen kudeaketa		<b>Arrigorriagan hondakinen berreskuratzeak goraka doan garapena izan du, nahiz eta UT21 Nerbioi-Ibaizabal eskualdekoaren azpitik,</b> % 19,5 %21–arekin alderaturik eta	




BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA			
Azpi-eremua	Balorazioa	Alderdi nagusiak	Esku hartzeko eremuak
5.4. Hiri hondakinen tratamendua		Udalsarea 21-aren batez bestekoaren azpitik (% 28,3 2.007 urterako) egon. <b>Eskualdeko Jasangarritasun Bulegoaren bitartez</b> eskualdeko herrietan <b>bereiztutako bilketa koordinatzen da, etxeko olioaren bilketa</b> , inpresio hondakinak eta mugikorak, pilak eta akumuladoreen bilketa.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Udal erakundeetan sortutako <b>hondakinak gutxitzeko, bereizteko eta kudeatzeko neurriak ezarri.</b></li> <li><b>Udalaz gaindiko eskumenak</b></li> <li>Industria sektoreak eskualdean sortzen duen <b>hondakin arriskutsu eta ez arriskutsuen kudeaketa hobetu.</b> (Udalerrri-enpresa proiektuaren garapena).</li> </ul>
5.5. Hiri hondakinei buruzko ordenantzak eta zergak		Ez da hondakin organikoen bilketa ezarri.	
5.6. Sentsibilizazioa		<b>Birziklagarriak ez diren hiri hondakinak</b> Igorreko zabortegeira eramaten dira. Basaurin kokatzen da gertuen aurkitzen den Garbigunea.	
5.7. Hondakin industrialak		<b>Kale garbiketarako ordenantza</b> bat dago, honek herri mailan hondakinen bilketaeta kudeaketa arautzen ditu.Eskualdeko Jasangarritasun Bulegoaren bitartez hondakinen eta huen kudeaketaren inguruko sentsibilizazio ekintzak garatu dira eta hondakinen kudeaketa, eskolako politikan txertatua dago <b>Eskola Agenda 21</b> programaren bitartez.	
5.8. Nekazaritza hondakinak		Arrigorriagako industri enpresa gehienak hondakin arriskutsuen ekoizle txikiak dira, beraien sortze datuak ez direlarik ezagutzen.	
5.9. Eraikuntzako hondakinak		Noiz behinka udalerrian obra hondakinen isurketak ikusten dira.	
5.10. Bide garbiketa		<b>Udaletxeak ez du kontrolatzen udaleko zerbitzu desberdinetan sortzen diren hondakin kopurua, bai ordea bere kudeaketa</b> , indarrean dagoen legediarekin bat datorrelarik.	
<b>6. ENERGIA</b>			
6.1. Egitura energetikoa		<b>Energia iturri berriztagarrien presentzia oso eskasa</b> da gaur egun. <b>Urteko kontsumo elektrikoa goraka joan</b> da urtetik urtera, gas naturalaren kontsumoa ordea ez, eta 2.007 urtetik aurrera beherakada bat izan du.	<ul style="list-style-type: none"> <li><b>Udal eskumenak</b></li> <li>Eraginkortasun energetikoa sustatu bai maila publikoan eta baita pribatuan ere.</li> <li>Udal erakundeetako <b>kontsumo energetikoen kontrola eta jarraipena sistematizatu</b> eta kontsumoak arrazionalizatu.</li> <li><b>Argiteri publikoaren</b> kontsumo energetikoen eraginkortasunean lan egin.</li> </ul>
6.2. Energia berriztagarrien ekoizpena		<b>Kontsumo elektrikoari</b> dagokionez Industri sektoreak dauka nagusitasuna (%67) eta ondoren zerbitzu sektoreak eta etxeko kontsumoak. Gasaren kontsumoari dagokionez, industri sektorea nagusitzen da ere, etxeko eta zerbitzu sektoreen aurretik.  Udalerrriak <b>8,79 kWko potentzia fotovoltaikoa dauka 10.000 biztanleko, udaletxeko</b>	








BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA			
Azpi-eremua	Balorazioa	Alderdi nagusiak	Esku hartzeko eremuak
6.3., 6.4, 6.5 eta 6.6. Tokiko administrazioko energiaren kontsumoa eta kudeaketa		eraikin berriak ezarritako eguzki plakei dagokiona. <b>Eguzki energia termikoari dagokionez</b> , ikastetxe publikoan eta futbol zelaiko aldageletan, <b>1.000 biztanleko 64,74 m<sup>2</sup> ezarrita daude</b> . <b>2.012 urtean hasi da</b> udal eraikinen eta argiteri publikoaren ikerketa energetikoa egiten. Udaletxeko <b>flota 7 ibilgailuz</b> osatua dago eta ez da aurreikusten ibilgailu elektriko edo mistorik eransterik gaur egungoen aldaketa tokatzen denean.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Biztanleriaren sektore ezberdinak</b> energiaren erabilera eraginkorrak eta aurrezpenak duen garrantziari buruz <b>sentsibilizatu</b>.</li> <li>• Energia kontsumo eraginkorra lortzeko ohitura egokiak ezartzeko <b>Udaletxeko teknikari eta politikariak sentsibilizatu</b>.</li> <li>• Biztanleriaren artean ibilgailu eraginkorrak edota ordezeko energia erabiltzen dutenak erostea sustatu.</li> </ul> <p><b>Udalaz gaindiko eskumenak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Energiari dagokionez laguntza eta diru-laguntzekin</b> jarraitu sektore pribatuan eta publikoan.</li> <li>• <b>Iturri berriztagarrietatik datorren energiaren erabilpena eta ekoizpena sustatu</b>.</li> </ul>
6.7. Energia kudeatzeko araudia		<b>Biztanleriari zuzendutako gidatze eraginkorrari buruzkoikastaroak antolatu dira</b> , baina ez udal langileei zuzenduak. Arrigorriagan, ez dago kudeaketa energetikoaren inguruko inolako arautegirik.	
6.8. Sentsibilizazioa		Eskualdeko Jasangarritasun Bulegoak garatutako sentsibilizazio eta komunikazio ekintzak garatu dira.	
<b>7. INGURUMEN KALITATEA, ATMOSFERA, AKUSTIKA ETA LURZORUAK</b>			
